

KONTROL MOZIOA

ARRAZAKERIA ETA XENOFIARIEN KONTRA UDALBATZAK HARTUTAKO ERABAKIAK BETE EZ IZANA DELA-ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko apirilaren 27an Udalbatzak, aho batez, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuak bermatzea erabaki zuen.

Maiatzaren 3an, gonbidatuak izan ginan ekitaldian bertan jakin genuen Udalak ZAS! Zurrumurruean Aurkako Sarera atxikitzen zela. Eta poz handiz jaso genuen berria; izan ere, beste behin, gizarte eragileek giza eskubideen eta kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako bidean aurrea hartu dute eta babes zabala ezinbestekoa dute.

Aldiz, elkarbizitzarako eta gizarte eraldaketarako, irmotasunez errotik hartu beharreko arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuen aurrean, inork ez dizkigu sare honekiko Udalak hartu dituen konpromisoak eta funtzioak azaldu.

Maiatzako batzordeetan ere sare honekiko egin beharrekoek edota arrazakeria eta xenofobiaren kontrako ekimene galdetu genuenean, erantzunik ez genuen jaso.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako elkarlanean, 2016ko apirilaren 27an Udalbatzak aho batez onartutakoa bete dezan.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arrazakeria eta xenofobiaren kontrako sareetan arduraz eta jarrera aktiboaz aritzea.

-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, arrazakeria eta xenofobiaren kontra, hiriko eragileekin eta talde politikoeekin elkarlanean aritzea, informazioa konpartitzea eta erabakiekiko ahalik eta babes zabalena bilatzea.

Donostian, 2016ko ekainaren 24an

Naiara Sampedro Perez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia